

## PSIKOLOGIA ESPERIMENTUA

### 0. Edukiak

Giza eskubideak orokorrean.  
Kirola.

### 1.- Definizioa

Tortura eta berau eman dadin egon daitezkeen baldintza ezberdinen inguruan hausnartzea.

### 2.- Helburuak

- Hiztegia aberastu.
- Giza eskubideen urraketen inguruan hausnartu eta era berezian torturaren inguruan.

### 3. -Partaideak

10 pertsonetatik aurrera.  
Adina: 12 urtetatik aurrera.

### 4. -Materiala

Gehigarria.

### 5. -Hasierako aipamena

Talde handia.

### 6. -Garapena

Jarraian azaltzen den testua arreta osoz irakurriko dugu eta gero eztabaida irekik oda galdera xortaz lagundurik.

### 7.-Ebaluaketa

Pertsona bati deskarga elektriko bat ematera konbentzitu daitekeela uste duzu? Nola?.

Inork konbentzitu zaitzakete unibertsitateko irakasleek egin zutena egiteko?

Irakasle bat bere ikaslearengan deskarga elektriko bat egiteko gai bada modu bolondres batean esperimendu batean parte hartzeagatik, ez al litzateke militarrei errugabe izendatu beharko agindu bat betetzerakoan Giza Eskubideren bat urratuko balute? Nola lortu daiteke, hemendik 20 urteetara esperimendua errepikatuko balitz, inork parte ez hartzea?

### 8. Iturria

<http://amnistiacatalunya.org/edu/material/htm/psicologia-tortura-ararteko.html>

## GEHIGARRIA

2. mundu gerraren ostean, ipar amerikar psikologo batek ikerketa bat egitea erabaki zuen: zergatik alemanek burutu zituzten hainbeste giza eskubide urraketa, bakarrik, aginduak betetzen ari zirela, argudiatuz. Alemanak bereziki esanekoak (obedienteak) al ziren? Hain esanekoak ziren, oinarritzko printzipio etikoen kontra egiteko gai zirela?

Iparrameriketako psikologoak esperimentu hau pentsatu eta burutu zuen alemanian baino lehen, bere herrian bertan, bera klan egiten zuen unibertsitatean.

Ikasle boluntario talde bat lortu zuen psikologoarekin adosturik, probatan parte hartuko zutenak. Benetan esperimentuaren subjektu izango zirenak, unibertsitateko irakasleak izango ziren arren. Irakasle hauei, psikologoak esperimentu bat egiten ari zela esango zien: ikasketak zigorren bidez nola hobetu zitekeen aztertzen ari zela.

Ikasleei gai ezberdinen inguruan galderak egin eta akatsa egiterakoan, irakasleak ustezko deskarga elektrikoa sortzen zuen mekanismoari sakatu behar zion. Ikasleek deskarga sufritzen ari zirenean itsura egin behar zuten.

Irakasleei aldioro deskargak handiagoak izango zirela adieraziko zitzaie, gehienez ere 150 volt arte (maila honetan, agian, ikasleengan kalteren bat sor zitezakeen).

Esperimentuak zera argitu zuen: irakasle askok parte hartzea erabaki zuen eta aldioro zigor handiagoak eragin. Asko ustezko gehiengoak ziren 150 voltioraino iritsi ziren.

Esperimentu berdina hainbat herrialdetan burutu zen emaitza antzekoekin.